


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,4 jaitsi ziren 2005eko abenduan

2005. urtean eraikuntzako kostuak %3,5 gehitu ziren

EUSTATen datuen arabera, eta azaroko datuen aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzako kostuen indizea %0,4 jaitsi zen 2005eko abenduan. 2005. urte osoko tasa %3,5 gehitu zen, 2004ko abenduaren aldean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2005



Iturria: EUSTAT

Urteko aldi horretan (2004ko abendutik 2005eko abendura bitartean) lan-eskuaren kostua %4,6 igo zen eta lehengaien kostua %3,1.

Abenduan, eraikuntzaren eta obra zibilaren azpisektoreek euron lehengaien kostuaren nahiko antzeko bilakaera izan zuten; hain zuzen ere, eraikuntzak %0,6ko beherakada izan zuen aurreko hilabetearekiko, eta obra zibilerako lehengaien kostuek %0,4koa aurreko hilabetearekiko. Bi azpisektore horien urteko bilakaeran argi ikusten da ibilbide antzekoak izan zituztela: eraikuntzako lehengaien kostuak %3,0 gehitu ziren, eta obra zibilekoak %3,3.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, abenduan inflazio-tasa handienak izan zituztenak ondokoak izan ziren: asfaltozko produktuak (%35,4), petrolioaren eratorriak (%31,0), harri landua (%6,2) eta esku-tresnak (%6,2). Aitzitik, lehengaien urteko prezioetan (2004ko abendutik 2005eko abendura bitartean) gutxitzeak izan dituztenen artean hauek sartzen dira: metalezko tutueriak (%-5,9), metalezko egiturak eta galdaragintza (%-0,8), bulegoko materiala (%-0,7) eta karea, igeltsua eta eskaiola (%-0,2).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2005EKO ABENDUA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	119,3	-0,4	3,5	3,5	
ERAIKINAK	119,2	-0,4	3,5	3,5	
OBRA ZIBILA	119,7	-0,2	3,8	3,8	
LEHENGAIEN KOSTUA	116,4	-0,6	3,1	3,1	
ERAIKINAK	116,5	-0,6	3,0	3,0	
OBRA ZIBILA	116,2	-0,4	3,3	3,3	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	126,1	0,0	4,6	4,6	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp